



2008ko Bizkaiko  
boluntariotzari  
buruzko azterlana

## Bizkaiak tinko eusten dio elkartasunari

Kaleratu berri da Bizkaiko boluntariotzari buruzko azterlan bat, 2003an argitaratutako azterlan baten datuak eguneratu dituena. Azterlan berria Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailak egin du, eta gure lurraldeak elkartasunari tinko eusten diola agerian jarri du: bizkaitarren % 11k ekintza boluntarioan buru-belarri parte hartzen du. Azterlan horretatik ondorioztatzen denez, hauek dira azken urteotako joera nagusietako batzuk: boluntarioen batez besteko adinak gora egin du, eta gero eta gizon gehiagok eta gero eta ikasle gutxiagok parte hartzen du boluntariotzan.

Halaber, azterlan horren arabera, ekintza boluntarioak gogobetetasun handiko esperientzia izaten jarraitzen du, eta baliagarritasun sozialagatik eta gogobetetasun pertsonalagatik parte hartzen dute batik bat pertsonak. Aipatu beharra dago, inoiz boluntario bezala parte hartu ez dutenen inkestaturen % 50ek, baldintza egokirik gertatuz gero, parte hartuko lukeela. Azterlan hori webgune hauetatik jeitsi dezakezue: [www.bizkaia.net](http://www.bizkaia.net) eta [www.bolunta.org](http://www.bolunta.org). Nahi baduzue, azterlanaren ale bat gure zentroan duzue eskuragarri.

## Europa, boluntariotzaren alde

Europako Batzordeak 2011. urtea proposatu du "Boluntariotzaren Europako Urtea" izan dadin. Milioika boluntario dago Europan, Erkidegoa asmo solidarioarekin eraikitzen dihardutenak. Egun horren bidez, Europako

erakundeek bi helburu lortu nahi dituzte: parte-hartze soziala sustatzea eta lan boluntarioaren balioa, batez ere, toki-eremuan, eta gure kontinenteko garapen sozial eta ekonomikoarekin duen konpromisoa aintzat hartzea.

# bolunta

**boluntariotza eta parte-hartzerako agentzia**  
agencia para el voluntariado y la participación social

boluntan

duela gutxi

eskaintzean dizuegu

laster



## Munduko Geologoak, Euskadin

Maiatzaren 16an, Munduko Geologoaren Euskadiko ordezkariak aurkeztu zen: garapenerako lankidetzako erakundea da eta 1999an sortu zen, arrisku geologikoak ebaluatzeko eta hondamendi naturalak eragindako ondorioak prebenitzeko helburuekin.



## Kalitatea Hirugarren Sektorean

Euskadiko Hirugarren Sektoreko ehunik gora gizarte-erakunde eta sarek, kalitatearen aldeko konpromisoa sinatu zuten, ekainaren 30ean, Eusko Jaurlaritzako, Foru Aldundiko eta Euskalit-eko ordezkarien aurrean. Konpromiso hori, kalitatearekin eta kudeaketaren hobekuntzarekin loturiko ekimenak ikustarazteko kezkaren ondorioz sortu zen.



## Ume Alaiaren hitzaldiak

Ume Alaiak maiatzaren eta ekainaren bi hitzaldi eman zituen Ekitaldi Aretoan, hain zuzen ere, "Hablando con mi hijo o hija adoptiva. Claves para abordar conversaciones difíciles" eta "Cómo ser madre o padre cuando no se es el biológico: ¿tiene mayor exigencia?".



## APSIDEn jardunaldia

DBHko orientatzaileek, ikasleei lan-espereintzia errazteko hezkuntza-programa berritzaileez gogoeta egin zuten, "Estudiar y ejercitarse en un oficio" jardunaldiaren bidez.



## Down-en Sindromearen Fundazioaren dantza

Hogeita hamar lagun inguru bertaratu ziren, ekainaren 19an, Down-en sindromearen fundazioaren adierazpen-programak gurasoentzat antolatu zuen dantza-erakustaldira.

## "Sestao Solidarioa" azoka

Maiatzaren 17ko goiz osoan, Kasko plazan, Sestaoko gizarte-erakundeek herritarrei beren lana aurkezteko aukera izan zuten. **bolunta** bertan egon zen, "Ni bai-Yo si" erakusketaren eskutik.



## 2009ko Ibilaldia

Galdakaon maiatzaren 31n, Bizkaiko ikastolen jaiaren ("Gerizpetik eguzkira begira") parte hartu zuen Agentziak, Atcore elkarterekin erakustoki berean.

## Portugaletoko Elkarten Azoka

Ekainaren 21ean, Portugaletoko Orube enparantza, boluntariotzako eta lankidetzako hogeita hamarretik gora erakundeek elkarraldiaren lekuko izan zen. Haurrentzako tailerrak izan ziren, baita kalejira eta toki handia, erakundeek, esaterako, **boluntak**, euren lana erakutsi zezaten.

## 2008ko Boluntariotzaren Egunaren margolanen irabazleak



Ekainaren 3an, Boluntariotzaren Eguna zela eta egin ziren lanak banatu ziren **ganbaran**. Lan horiek, aurkeztu ziren hogeita hamar gizarte-erakunde ingururen artean zozkatu ziren. Inma Fernández, Leire Larretxea, La Trini, Katia Azkorra, Iñaki Landa, Idoia Atxa eta Ane Pikaza artistek beraiek eman zizkieten lanak irabazleei: Acabe, Mugarik gabeko Ingeniaritza, Adembi, Elkarbanatuz, Kale dor kayiko, Gizatiar eta Zubietxe.

## Futubide-ren 15 urte

Futubide-Fundación Tutelar Gorabide 15 urte bete ditu 2009an. Ospatu beharra zegoen, eta irailaren 16an, Guggenheim Bilbao Museoa urteotan fundazioarekin egon diren guztiak hartu zituen. Zorionak!



## ganbarak bulegoak jartzen ditu elkarten eskura

Zabalduta jada **ganbara** elkarte-gunean behin behineko egoitza lortzeko deialdia. Bizkaiko irabazi-asmorik gabeko elkarteak aurkez daitezke, baldin eta lokal bat eta lan solidarioa garatzeko gutxieneko baliabiderik ez badute. Betekizunak webgunean dituzue eskuragarri: [www.ganbara.net](http://www.ganbara.net). Nahi baduzue, deitu **boluntara**.

## Informazio bera paper gutxiagorekin

Aldizkari hau paperean baino posta elektronikoz jaso nahi baduzu, bidali mezu bat helbide elektronikoa: [bolunta@bolunta.org](mailto:bolunta@bolunta.org). Mezuan adierazi zure izen-abizenak eta helbide elektronikoa.

DP: BI-1908-05

## eleak

**boluntak** lau hilero behin plazaratzen duen argitalpena da. Datuak babesteko 15/1999ko legearen arabera, argitalpen hau gehiago jaso nahi ez baduzu, zure datuak aldatu nahi badituzue edo gure datu-basetik kendu nahi badituzue edo izena eman nahi baduzu, mesedez, erosoan zaizun bidetik gugana jo.

## bolunta

Erronda z/g. 48005 Bilbo  
Tel. 94 416 15 11. Faxe 94 416 88 64  
[bolunta@bolunta.org](mailto:bolunta@bolunta.org)  
[www.bolunta.org](http://www.bolunta.org)



## Boluntariotzari buruzko Estatuko XII. Biltzarra, Murtzian

Aurten, abenduaren 3an eta 4an, hain zuzen, Boluntariotzari buruzko Estatuko XII.

Biltzarra izango da Murtzian. "Voluntario: te lo pide el corazón" izango da ikurrizta eta gai hauek arituko da, besteak beste: boluntariotzaren etorkizuna, boluntariotzaren dimentsio europarra, adinekoen parte-hartzea edo kalitatea. Gehiago jakin nahi baduzu, kontsultatu biltzarraren webgunea: [www.decimosegundocongresoestatalvoluntariado.org](http://www.decimosegundocongresoestatalvoluntariado.org).

## Soziologiari eta Politika Zientziei buruzko VIII. Euskal Biltzarra

2010eko otsailaren 10ean, 11n eta 12an, biltzarra hau izango da Bilbon. Soziologia eta Politika Zientzien Euskal Elkarteak antolatu du, izenburu honekin: "Gizartea eta Berrikuntza XXI. mendean". Lan-taldeak egongo dira, hainbat gaitan sakontzeko, hala nola, hezkuntza, nazioarteko harremanetan, osasunean, jasangarritasunean, aldaketa globalean edo genero-soziologian, besteak beste. Gainera, aurtengo kongresuak gizarte-erakundeak irekiko dizkie ateak.

## Jatearen nahasmenduei buruzko VIII. Jardunaldia

Azaroaren 27an, Bizkaiko ACABEk Jatearen Nahasmenduei buruzko VIII. Jardunaldia egingo du. Jardunaldi horretan, profesional adituek hainbat gai buruz arituko dira, "Las emociones y la regulación emocional en los trastornos alimentarios" programaren barruan. Jardunaldia, Bilboko Udal Liburutegiko Ekitaldi Aretoan izango da.

## Datozen Elkarraldiak "Bat egin boluntariotzarekin"

Elkarraldi edo topaketa guztiak **boluntan** izango dira. Doakoak izango dira. Bertaratzeko asmorik baduzue, baieztatu aldez aurretik, mesedez.

Azaroaren 26a (osteguna)	18:00etatik 20:00etara
Abenduaren 1a (asteartea)	18:00etatik 20:00etara
Abenduaren 19a (larunbata)	10:00etatik 12:30era